



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




afera 'asuntoa, gorabehera'	«Eta Mireia ez zen preseski soraio munduarentzat: izan zuen amodio aferearen bat edo beste arrosa-pastel koloreko horma haien artean.»	(36)
agondu 'zutitu, goititu'	«Eta hor daudela jakiteak ere ez digula askorik laguntzen –neska ohean agondu zen.»	(136)
aiene-melodia 'kexuzko doinua, arrangurazkoa'	«Biolin baten aiene-melodia .»	(11)
aje 'ostea, mozkorraldi ondorioa'	«Ahoko zapore mikatzak ajearen ebidentzia sendotu zion.»	(59)
akastun 'erratua, zuzena ez dena'	«Paulik dohain berezia zeukan akastun bideak hautemateko, edozein teoriaren oker ezkutuak topatzeko.»	(198)
akolito 'apaizaren laguntzailea'	«Naturaren akolito nauzu, ez beste jainkorena.»	(17)
alferrrik galduta egon 'erremediorik eduki ez'	«— Alferrrik galduta nago , Joseba –jarduten zitzaion Amaia sarritan, Josebari—.»	(58)
amildu 'erori, jausi'	«Belztasun hondogabe batean amiltzen sentitu zen une batez.»	(9)
anker 'krudel, bihozgabe'	«Nolanahi ere, Juneri hurreratzen zitzaion bakoitzean neskak iseka egiten zion. Anker eta temati.»	(49)
apetatsu 'kasketaldiak dituen, aldakorra'	«Berrogei jakintsu apetsatsu edo etsikor, edo isil eta zoro.»	(190)
apika 'agian, beharbada, ausaz'	«Gero, apika , hamaika burokraziaren pisu astunak estaliko zituen bidezidor guztiak.»	(118)
asaldatu 'ikaratu bezala, sustoa hartu'	«Barruko egoerak zeharo asaldatu zuen. Enbata lazgarrienak bisita egin balio bezala zegoen guztia...»	(120)
ase 'bete, lasaitu'	«Lee Harvey Oswald bat harrapatzeak aseko zintuzke? —Turko-buru bat.»	(135)
askoa 'nahikoa, xamarra'	«Eraikin itxuroso askoa zen lehen, eta orain porlan eta plastikozko artelan postmoderno, ikaztu eta gaixotia besterik ez zuen ematen.»	(66)
atabiko 'arkaikoa'	«...eta, Einsteinek, egia zen, oso gogokoa zuen orriotan sumatzen zuen espiritualtasun gori, hunkigarri eta atabikoa .»	(19)
atoan 'beregala'	«Bennetten begirada hotza ikustean atoan isildu zen—.»	(30)
aura 'argitasun uztaia'	«Argia eta gogorra bezain sentibera, hausnartu zuen Josebak. Hauskor aura batek inguratzen zuen beti, obsesioaren oldarrak oldar...»	(62)
bailitzan 'balitz bezala'	«Musika hura egiteko ur-jauzi baten moduan erori zitzairen gainera zientzialari guztiei, hitzik gabe, aiene atabikoa bailitzan .»	(102)
barre karkara 'barre zantzoa, algara'	«— Ez dut sekula ahaztuko –hasi zen Einstein, barre karkara ozena eginez— behin bota zidana.»	(95)
barrenkor 'sakonekoa'	«Leioara iritsita, ezin izan zuen hotzikara barrenkor bat itoarazi.»	(158)
bederen 'behintzat, behinik behin'	«Amaiak, berriz, zapuztutako ametsen ordainean, irudizko ikerketak egiten zituen edo (...) xixkalarien lapurreta oro –imajinazioan, bederen — errepikatu.»	(58)
bere baitarako 'bere kolkorako, bere kautan'	«Akabo —errepikatu zuen Peterrek bere baitarako —.»	(32)
bere kolkorako 'bere barrurako, bere kautan'	«— Beraz? —Zeure esku. Beti bezain zoliak, ironizatu zuen Ramírez kapitainak. Bere kolkorako , noski.»	(44)
berrespen 'konfirmazioa'	«— Emakume hori berriro —esan zuen Amaiak. Ez zuen berrespenik behar—. Amaiaren laguna.»	(123)
berretsi 'baietsi, konfirmatu'	«Einsteinen azken hitzak berretsi zituen...»	(197)




betiereko 'eterno'	«Ez zen inguruan –betiereko bizkartzainak salbu– beste inor ikusten.»	(29)
bidenabar 'bide batez, aldi berean'	« Bidenabar , begiak adi, txoko guztiak miatzen jarraitu zuen, etengabe.»	(122)
bidezidor 'atajoa, bidexka'	«Gero, apika, hamaika burokraziaren pisu astunak estaliko zituen bidezidor guztiak.»	(118)
bihozkada 'zerbaiten susmoa, sentimendua'	«— Joseba, faborez, ez nahastu bazterrak gehiago. Bihozkada txar bat daukat.»	(126)
churrigueresco 'barrokoa, horniduraz beteegia'	«Bulegoak bazar desordenatua ematen zuen, churriguereskoa , trastez gainezka.»	(160)
deliberatu 'erabaki, ziurtasunez baieztatu'	«Lana da emaitzak lortzea –deliberatu zuen Bennettek, zorrotz–.»	(29)
desenkusatu 'bere burua zuritu'	«— Barkatu, etxea apur bat desordenatuta dago –desenkusatu zen.»	(105)
dexente 'ugari, asko'	«...bonbaren eraikuntza bukatu genuenean eztabaida dexente izan zela.»	(21)
di-da batean 'berehala, arin baten'	«Egin beharreko artikuluak di-da batean amaitu nahi zituen, lehenbailehen kentzeko gainetik.»	(75)
duineza 'errespetu falta'	«Garbi utzi behar da: alemaniar intelektual ororentzat duineza da judutar baten ideiak jarraitzea.»	(7)
egoskorkeria 'temati jartzea, burugogor'	«— Halabeharra –erantzuten zuen neskak, sarkasmoari helduta–. Eta egoskorkeria apur bat.»	(38)
ekidinezin 'saihestezina, inebitablea'	«Baina ez naiz horregatik etorri, Albert. Hori ekidinezina da.»	(22)
eldarnio-hazi 'sukar-zorabioa, haluzinazioa'	«Hortik sortuko zitzaion obsesioa, suposatzen zuen Josebak. Diligentzia amaigabeek ereingo zuten eldarnio-hazi bitxi hura.»	(58)
enbata 'itsas ekaitza'	«Barruko egoerak zeharo asaldatu zuen. Enbata lazgarrienak bisita egin balio bezala zegoen guztia...»	(120)
eragozpen 'traba, gorabehera'	«Bere ohiko lanean fin aritzen zen, eta ez zuen inolako eragozpenik sortzen.»	(73)
eraitsi 'bota'	«Leviatan deitzen diogu geure artean elkar ulertzeko. Leviatan eraitsi beharreko munstroa da beti, berdin da zein taldek osatzen duen.»	(212)
erdeinu 'mespretxua, gutxiespena'	« <i>Terra incognitan</i> ari ginen. Ezezaguna, arriskutsua eta erdeinuz jositako lurra.»	(21)
erdia pasa 'erdia baino gehitxoago'	«Beheko eraikinaren erdia pasa bel-beltza, zeharo gardostua, eta ke zutabeak ateratzen ziren handik eta hemendik.»	(65)
erein 'eragin, sorrarazi'	«Hortik sortuko zitzaion obsesioa, suposatzen zuen Josebak. Diligentzia amaigabeek ereingo zuten eldarnio-hazi bitxi hura.»	(58)
erraiak 'barruak, hesteak'	«Amorruak eta hirak leher egin zioten erraietan . Mireiaren hiltzailea. Bere aurrean.»	(219)
erronkari 'desafiozkoa, adierazgarria'	«Gaztaina-koloreko ile lisoa, irribarre erronkaria ...»	(75)
esatear egon 'esatekotan, esateko puntuan'	«Taxi gidariari gelditzeko esatear egon zen...»	(67)
esbastika 'nazien gurutzea'	«Basapiztia ilehoriek bata bestearen atzean harilkatzen zituzten garaipenak, beren esbastikaren azpian...»	(13)
eskerga 'handi-handia, erraldoia'	«Churchillek altzairuzko oihala esamoldea sortu zuenerako, Stalinekin martxan zeukan bere propagandako tren-makina eskerga ...»	(202)
espartano 'soila, justu-justuko gauzekin'	«Einsteinen gela nahiko espartanoa zen: mahai bai eta aulki bi, arbela, egurrezko apalak...»	(16)




ezgauza 'inutila, balio ez duena'	«Kapitainak ondo ezagutzen zuen arrazoa: promozio berriak gero eta harroagoak ziren, hauskorak eta ezgauzak bezainbeste.»	(40)
fardel '(zakutotxoa) /	«— A ze fardela! —kexatu zen Bohr, bileraren zergatia ulertuz...»	(197)
fin aritu 'saiatua, gogoz'	«Bere ohiko lanean fin aritzen zen, eta ezz zuen inolako eragozpenik sortzen.»	(73)
galbahe 'bahea, garia iragazteko tresna'	«Lehenbizi, ahalik eta datu gehienak bildu. Ondoren, esperientziaren galbahetik pasatu, eta ezinezkoak baztertu...»	(127)
galgatu 'frenatu, gelditu'	«...azkarregi jolasean hasteko; azkarregi gero galgatu ahal izateko.»	(137)
ganbara 'burua'	«Begiak erdi itsatsita eta ganbara aldea batere fin ez. Buf. Burua mugitzen saiatu zen.»	(57)
gandutu 'lainotua, nahastua'	«Begi gandutuak ireki zituen. Euri tantak. Besterik ez.»	(218)
gardostua 'azala edo kanpoaldea erreta'	«Beheko eraikinaren erdia pasa bel-beltza, zeharo gardostua , eta ke zutabeak ateratzen ziren handik eta hemendik.»	(65)
girlanda 'lore koroa' (?)	«Ikusten ditudanean gorritz tindaturiko lainoak, arrosen itzaltze arina eta urretxindorren kanta sakon eta tristea ostargi-belarren girlanden artean...»	(33)
gloria mundi 'munduko loria'	«...urretxindorren kanta sakon eta tristea ostargi-belarren girlanden artean, hau baino ezin dezaket oihuka, bihozminez: <i>sic transit gloria mundi</i> .»	(33)
gorraize 'gortasun arina'	«Normala irakasleak ate-kolpeak ez aditzea. Txemak esan zionez, gainera, Otxotorenak gorraize pixka bat zuen.»	(159)
hara 'begitu, kontxo'	«Neure urtebetetzea da gaur. — Hara , ez nekien. Zorionak.»	(85)
haraindiko 'haragoko, urruneko'	«...zelaia ur gortinak lausotua zegoen. Haraindiko zuhaitzak laztantzeko keinua egin zuen, perspektiba-jolasaren laguntzaz...»	(89)
harilkatu 'haria bildu'	«Basapiztia ilehoriek bata bestearen atzean harilkatzen zituzten garaipenak, beren esbastikaren azpian...»	(13)
harmagedon 'apokalipsia, suntsipena'	«Euria. (Harmagedon) <i>Aukeratu egin behar dugu: edo arma nuklearren erabateko debekua, edo gizakion deuseztatpena.</i> (A. Einstein)»	(207)
hauskor 'apurkorra, fragila'	«Argia eta gogorra bezain sentibera, hausnartu zuen Josebak. Hauskor aura batek inguratzen zuen beti, obsesioaren oldarrak oldar...»	(62)
hauteman 'igarri'	«Bidali informazio hau guztia Agentziara —eskatu zion Millerri. Mordoiloa askatuko zuten harietako bat hantxe zutela hauteman zuen—.»	(166)
hein batean 'neurri batean'	«Bohrrek, hein batean, kuantuen munduko <i>egian</i> sinesten zuen...»	(195)
herrestan 'arrastaka, tarraz, tatarrez, narraz'	«Zertan ari zen: (...) bere nahimenak erabakitako aukerei men egiten... edo menperatu ezin zuen kate ezezagun batek herrestan zeraman lekuetatik...»	(129)
higatu 'itxura eskasekoa, zaharkitua'	«Gizon luzanga eta higatu hark zientzialaria edo eroa baino ezin zuen izan...»	(11)
hira 'haserrea'	«Amorruak eta hirak leher egin zioten errailetan. Mireiaren hiltzailea. Bere aurrean.»	(219)
hurko 'norberaren hurrengoa (prójimo)'	« Hurkoaren bizitzaren gaineko botere hark, gogoratu zuen Ramírez kapitainak, bizia kendu edo barkatzeko gaitasunak...»	(182)
in crescendo 'haziaz, gero eta gehiago'	«...biolina atera zuen. Hatz ikasiez zarata oro urratu zuen, <i>pianissimo</i> batekin hasiz, nota luze, ziztakariekin in crescendo -ra egiteko.»	(102)
irrikatu 'gogo handiz desiratu'	«Orain, ordea, beste norbaiten hurbiltasuna irrikatu zuen.»	(35)
iseka egin 'trufatu, burla egin'	«Nolanahi ere, Juneri hurreratzen zitzaion bakoitzean neskak iseka egiten zion. Anker eta temati.»	(49)




itsumustuko 'bat-batekoa, ustekabekoa'	«...aurpegia gorritua zeukan, batera eta bestera ibili beharrak eta, agian, itsumustuko beroak eraginda.»	(11)
itu 'diana, jo-puntua'	«Lurrera erortzean luze-luze jartzen ahalegindu zen, ahalik eta itu txikiena izateko neskaren begietan, eta, ahal izanez gero, hura nahasteko.»	(215)
itzarrita 'esna, itzarrik'	«Pauli bere txokoan mugitu eta burua altxatu zuen, itzarrita .»	(198)
janari-orban 'janari mantxa'	«Bi janari-orban deigarrik zeharkatzen zuten Einsteinen alkandora zuria.»	(12)
jelatu 'izoztu'	«...militarren eta zientzialarien arteko harremana bat-batean jelatu zela esango nuke.»	(190)
kale itsu 'irteera bakoa'	«...baina arrasto guztiak kale itsuan amaitu zaizkie.»	(171)
kankailu 'gizaki handia eta dorpea'	«Eskua besape aldera eraman zuen kankailuaren lagun herrenaz ohartu zen Amaia...»	(183)
katigatu 'printzatuta, atxikita'	«Hemingwayren sanferminak ezagutzera joan eta azkenean Donostian katigatuta gelditu nintzen...»	(30)
kliska 'begien itxi-irekia'	«...edozein kalkulagailu elektronikok baino azkarrago kalkula zezakeen, edozer gara zezakeen kliska laburrena amaitzerako.»	(193)
konturatzera 'konturatu orduko, baino lehen'	«Bestearen burua nahi zuen berriz, kapitaina eraisteko. Baina konturatzera zezen baten oldarrak aurretik eraman zuen...»	(141)
lakar 'latza, leuntasunik ez duena'	«— Baina nola —Oppenheimerrek Tellerren doinu trauskil eta apur bat lakarra imitatu zuen, hungariarra baitzen...»	(92)
lanean zorrotzagorik! 'saiatua, fina'	«Ondarretako komisariara joanda egongo zen ordurako. Demontre. Lanean zorrotzagorik! »	(57)
lardaskatu 'maluskatu, mordoilatu, aldrebestu'	«— Gure egitekoa (...) sekretuak sekretupean iraun dezan lan egitea izango da. Sekretuaren inguruko kontzeptuak lardaskatzea edota iluntzea...»	(205)
laudagarri 'txalogarria'	«Zaletasun hura laudagarria bai, baina ezin zela ona izan hainbestearainoko sukarra .»	(73)
lausotua 'difuminatua, garbi ez ikusteko eran'	«...zelaia ur gortinak lausotua zegoen. Haraindiko zuhaitzak laztantzeko keinua egin zuen, perspektiba-jolasaren laguntzaz...»	(89)
lepoa egin 'apustu egin, jokatu nuke'	«Telebistakoa Ibaetako Physics Center-eko eraikinetako bat zen, lepoa egingo zukeen Josebak.»	(64)
leviatan 'munstroa'	« Leviatan deitzen diogu geure artean elkar ulertzeko. Leviatan eraitsi beharreko munstroa da beti, berdin da zein taldek osatzen duen.»	(212)
lukainka sartu 'trikimailuz engainatu'	«Ez zion inolako lukainkarik sartuko .»	(162)
malkar 'harritsua, maldatsua'	«Galtzaileen zapore malkarra zeukan.»	(9)
marmar 'murmurioa, soinu isil etengabea'	«Eraikinaren txoko bateko iturriaren marmar isilak iluntzeko beste zaratak estali zituen.»	(29)
martiri 'jazarpenez oinazez hildakoa'	«— Martiri bihurtu zaitu —bota zion Einsteinek—. Ez zara kexatuko!»	(92)
mataza 'korapiloa, hari multzoa'	«Datuak behar zituen matazaren mutur guztiak aurkitzeko. Guztiak?»	(127)
mela-mela eginda 'busti-bustirik, blaiturik'	«Mutilak ilea orraztearena egin zuen. Guztiz alferrik, mela-mela eginda zegoen eta.»	(223)
miatu 'arakatu, ikertu'	«Bidenabar, begiak adi, txoko guztiak miatzen jarraitu zuen, etengabe.»	(122)
mikatz 'mingotsa'	«Ahoko zapore mikatzak ajearen ebidentzia sendotu zion.»	(59)



mirabe 'zerbitzaria, otseina'	«Filosofoek –Voltaire eredu– ez zeukaten asmorik baserritarrek, mirabeek , artisauek irakur zitzaizten.»	(185)
mordoilo 'korapiloa, mataza'	«Bidali informazio hau guztia Agentziara –eskatu zion Millerri. Mordoiloa askatuko zuten harrietako bat hantxe zutela hauteman zuen–.»	(166)
morroilo 'kandatua'	«Ba, orduan ez mugitu hortik eta atea morroiloz itxi.»	(121)
murmurikatu 'marmarka egin'	«– Prometeo – murmurikatu zuen, begiak itxiz.»	(9)
nahimen 'gogoa, apeta'	«Zertan ari zen: bere bidea jarraitzen, bere nahimenak erabakitako aukerei men egiten...»	(129)
oinordetza 'heredentzia'	«Guraso kubatarrek itxura eta odol karibetarra eskaini zioten oinordetzaz , eta horri esker ez zitzaion zailegia neskak erakartzea.»	(49)
oldarrak oldar 'inpetuak bultza'	«Argia eta gogorra bezain sentibera, hausnartu zuen Josebak. Hauskor aura batek inguratzen zuen beti, obsesioaren oldarrak oldar..»	(62)
onenean ez egon 'unerik gozoenean'	«– Barkatu. Ez nago nire onenean .»	(122)
oparo 'handi-handia, naroa'	«Argia eginez joan zen bere buru oparoan .»	(195)
ostargi-belar 'belar-mota'	«Ikusten ditudanean gorritz tindaturiko lainoak, arrosen itzaltze arina eta urretxindorren kanta sakon eta tristea ostargi-belarren girlanden artean...»	(33)
ozar 'lotsagabea, mutiria'	«Kapitainak ikusi orduko neurtu zuen laguntzeko bidali zioten agentea: gaztea eta ozarra ...»	(138)
pagotxa 'zortea, ustekabeko zoria'	« Pagotxa gutxi energiaren arloan.»	(113)
panteismo 'jainkoa eta mundua bat'	«Bere Baruch Spinoza maitearen panteismo zintzotik oso gertu sentitzen zuen.»	(19)
paranoia 'eskizofrenia, delirio mota'	«...aristotelesengandik hona izandako logikorik handiena, paranoia mota guztiek jota zegoen.»	(15)
pasieran 'paseoan'	« Pasieran joan zen, Kontxa alderaino.»	(119)
patologo 'mediku espezialista'	«– Barkatu, idazkariren bat edo? Patologo batekin hitz egin nahi nuke.»	(115)
patu 'zoria, adurra, destinoa'	«Landauek lepo atzean sumatu zuen patu ilun haren kiratsa.»	(96)
perifrastikoa 'itzulinguruka, zeharkakoa'	«Alegia, ezetz, aski perifrastikoa bazen ere. Einstein... Kontseilariak ez zeukan erremediorik.»	(28)
petraldu 'temati jartzea, okerkeriatan'	«...–azaldu zion Josebak eraikina seinatuz eta ahotsa gozatuz; ez zitzaion ertzaina petraltzea komeni–. Faborez, zer gertatu da hemen?»	(66)
petrikilo 'medikua'	«– Sánchez doktorea naiz –jakinarazi zion ahotsak–. Auzitegiko petrikiloa .»	(130)
pianissimo 'oso-oso astiro, suabe, leun'	«...biolina atera zuen. Hatz ikasiez zarata oro urratu zuen, pianissimo batekin hasiz, nota luze, ziztakariekin <i>in crescendo</i> -ra egiteko.»	(102)
preseski 'bereziki'	«Eta Mireia ez zen preseski soraio munduarentzat: izan zuen amodio aferaren bat edo beste arrosa-pastel koloreko horma haien artean.»	(36)
profil 'soslaia, silueta'	«Dianneren profila aztertu zuen, dar-dar gordin batek gihar guztiak astintzen zizkion bitartean.»	(214)
prozac 'animatzeko botika'	«Eta kalea ekintza zen. Eta ekintza bere prozac partikularra.»	(42)
samur 'erraza / gozoa'	«Baliabide handiak dituzte ikerkuntzarako, eta ez zaigu samurra izaten horiek kontrolatzea.»	(212)



sanskrito 'Indiako hizkuntza zaharra'	«Bai, Oppenheimerrek irakurrita zeukan <i>Baghabad Gita</i> . Eta jatorrizko sanskritoan gainera.»	(19)
sarkasmo 'ironia latza	«—Halabeharra —erantzuten zuen neskak, sarkasmoari helduta—. Eta egoskorkeria apur bat.»	(38)
sekuoia 'zuhaitz mota: handia eta sendoa'	«Gazte haien artean Landau nagusitzen zen, sekuoia bat bitxiloreen artean bezala...»	(95)
sic transit 'horrela igarotzen da'	«...urretxindorren kanta sakon eta tristea ostargi-belarren girlanden artean, hau baino ezin dezaket oihuka, bihozminez: sic transit gloria mundi .»	(33)
soiltasun 'berezitasun, berezkotasun'	« <i>Baina soiltasun horien guztien azpian elefantea zegoen; ohiko logikaren logika!</i> »	(196)
soraio 'nagi antzekoa, hotza, sentim. bakoia'	«Eta Mireia ez zen preseski soraio munduarentzat: izan zuen amodio aferaren bat edo beste arrosa-pastel koloreko horma haien artean.»	(36)
temati 'setati, behin eta berriro'	«Nolanahi ere, Juneri hurreratzen zitzaion bakoitzean neskak iseka egiten zion. Anker eta temati .»	(49)
tiradera 'kajoia'	«Einsteinek tiraderatik pipa atera eta ahoan jarri zuen, baina piztu gabe.»	(95)
toteltasun 'hitz egiteko moteltasuna'	«Infernu bihurtu zitzaion barnetegi batean eman zuen gaztaroa. Toteltasun ezkutaetzina atera zuen handik.»	(191)
trauskil 'txukuntasunik gabea, arduragabea'	«—Baina nola —Oppenheimerrek Tellerren doinu trauskil eta apur bat lakarra imitatu zuen, hungariarra baitzen...»	(92)
triskatuta 'birrinduta, zirtzilduta'	«Arropa, janaria, liburuak, ontziteria... Dena lurretik, dena triskatuta .»	(121)
turkoburu 'erruduntzat jotako errugabea'	«Lee Harvey Oswald bat harrapatzeak aseko zintuzke? — Turkoburu bat.»	(135)
txabusina 'bata'	«Garbitzaile batzuk ikusi zituen, txabusina urdinez jantziak, alboko ate batetik irteten.»	(115)
tximadun 'ile sorta luzea'	«Lehoi- tximadun jakintsuak zientzia— mundu berriak abiarazi, eta ikusi ondoren onartu nahi izan ez zituelako.»	(14)
ulu 'otsoen oihua'	« Ulu bakoitzean ultimatum mehatxagarria entzuten zuen, eta eguna jaio bezain laster jaikitzen zen, kezka melatua.»	(98)
urretxindor 'txori kantaria, gauzez'	«Ikusten ditudanean gorritz tindaturiko lainoak, arrosen itzaltze arina eta urretxindorren kanta sakon eta tristea ostargi-belarren girlanden artean...»	(33)
xixkalari 'lapur txikia, ratero'	«Amaiak, berriz, (...) irudizko ikerketak egiten zituen edo (...) xixkalarien lapurreta oro —imajinazioan, bederen— errepikatu.»	(58)
xixko eginda geratu 'sats eginda, pot eginda'	«Eta gainera porrot handia jasan zuen bere ikerketan. Xixko eginda geratu zen.»	(81)
xuxurla 'ahapeka, hizketa isila'	«—Ezin dugu ezer egin —atera zitzaion xuxurla batean.»	(126)
zapuztu 'gaizki atera,	«Amaiak, berriz, zapuztutako ametsen ordainean, irudizko ikerketak egiten zituen edo (...) xixkalarien lapurreta oro —imajinazioan, bederen— errepikatu.»	(58)
zer gerta ere 'badaezpada'	«Defentsa-idazkarientzat hipotesi hutsa bada ere, jo eta su dabilta haren atzetik. Zer gerta ere .»	(213)
zertu 'gauzatu, egin'	«Hura kristalizatzea, zertzea falta zitzaion, beharbada.»	(182)
zirkinik egin ez 'mugimendurik txikiena ere ez'	«Minutu batez ez zuten zirkinik egin , besarkatuta egon eta elkarri begira, besterik ez.»	(134)
zitzakari 'sarkorra, eztenkaria'	«...biolina atera zuen. Hatz ikasiez zarata oro urratu zuen, <i>pianissimo</i> batekin hasiz, nota luze, zitzakariekin in crescendo -ra egiteko.»	(102)
ziztuan 'arrapaladan, atoa'	«Poliki sartu zen, baina bere begiek txoko guztiak aztertu zituzten ziztuan .»	(53)



zoli 'nabarmena'	«—Beraz? —Zeure esku. Beti bezain zoliak , ironizatu zuen Ramírez kapitainak. Bere kolkorako, noski.»	(44)
zorabio 'bat-bateko makalaldia'	«Bat-bateko zorabio batek goitik behera astindu zuen, ordea...»	(9)
zundatu 'arakatu, ikertu'	«Orduan ez nuen ulertu zergatik esan zizkidan esan zizkidanak. Ni zundatu nahian ote zebilen, nekizkienak esanarazteko?»	(200)
zurrun 'gogortua, tentsoa'	«Hotza eta zurruna izan zen emakumearen begirada.»	(11)
zurtu 'inpresionatu, harritu'	«Mekanika kuantikoaz zurtuta geratu ez denak ez du ulertu.»	(103)